

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 246. alea - 2019ko abendua

A woman with dark hair, wearing a white, textured, short-sleeved dress and red shoes, is performing a balancing act. She is crouching on a tall, black metal structure, with a large, dark brown leather suitcase balanced on her head. The suitcase is secured with metal latches and rivets. The background shows a crowd of people, some of whom are looking towards the performer. The scene is outdoors, with green foliage visible in the background.

Garazi Pascual,
kablearen gainean
dantzan



Seven Clovers
Irish pub
943 191 295

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan


Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otarrekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



LIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf.: 685 703 843



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 • 943 19 24 42 • sasoiiko@hotmail.com

AURKIBIDEA

5

GUTUNAK

“Egoera puntuala izango delakoan, hurrengo bidaiarekin amets egiten ari gara”...

7

ALBISTEAK

Indarkeria matxistaren kontrako aldarria Azaroaren 25aren bueltan

10

ELKARRIZKETA

Kable gainean dantzan aritzen den Garazi Pascual lasturtarrekin solasean

14


ALBISTEAK

Zuhatzak azaroan antolatutako kultur ekimenak, Mendatan banatutako sariak...

16

B. GAZTEA

Euskara Batzordeko kideei egindako elkarrizketa, Euskararen Eguneko ekimenak...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hedakuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hedakuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Raúl López

Publizitatea: Joseba Escudero eta Terese Larrañaga

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria


Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Zatoz Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egitera!

Ate-joka ditugu eguberriak, gabon usaina suma daiteke herrian, ezta? Bada, urtero bezala, ohiko hitzordua iragartzeko ordua iritsi zaigu.

Dakizuen bezala, abenduaren 24an, eguerdian, Olentzero eta Mari Domingi izango ditugu bisitan herrian, euren astoaren konpainian. Azken eskutitzak

jaso aurretik, herritarrek agurtu eta kalejiran ibiliko dira -plaza zaharretik abiatuta-. Indarrak berreskuratze aldera, salda eta ogitarteko postua ere egongo da gero Foruen plazan.

Hitzordua txukun-txukun irten dadin, herriko elkarte eta norbanako ugari elkarlanean dabilta antolakuntza

lanetan eta herritarren parte-hartzea eskatu dute. Gonbidatuta zaudete, beraz, guzti-guztiok Olentzerori eta Mari Domingiri harrera beroa egitera. Animatu, ondo pasako dugu eta!

Eguberri on denoi!

*Olentzero eta Mari Domingiren
etorrera prestatzeko lantaldea*

Atera bidera, orain presoak!



kin amaitzeko ordua dela adierazten duten aldarrikapenez betetzeko asmoa dugu.

Ordua da urrunketa politikarekin amaitzeko; haren ondorioz, oraindik ere 142 dira 600 eta 1.100 km bitarte urrun-

Dakizuen moduan, datorren urtarrilaren 11n (larunbata), "Atera Bidera Orain Presoak" lelopean, Bilboko kaleak salbuespeneko espetxe politika hone-

duak dauden presoak eta, beste 42, 590-400 km artean daudenak. Ahaztu gabe 16 direla jada politika honen ondorioz istripuetan hil diren senideak.

Ordua da Espainiako Estatuan dauden 25 euskal emakume presoetatik 12k jasaten duten bakartze egoerari amaiera emateko.

Ordua da ama, aita edo biak espetxean dituzten 104 motxiladun haurren egoera behingoz alda dadin.

Ordua da larriki gaixo diren 21 presoak jasaten ari diren heriotza zigorra eten eta etxeratzeko.

Egoera honen aurrean, aurten, gabonen testuinguruan, urtarrileko manifestazioari begira motorrak berotze aldera, mobilizazioak antolatu dira lau hiriburuetan; abenduaren 21ean Gasteizen eta Iruñean, 27an Bilbon eta 28an Donostian.

Saretik, herritarroi mobilizazio hauetan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu. Bilboko manifestaziorako autobusak antolatuko dira; beraz, eman zuen izena ohiko lekuetan.

Merezi du, merezi dute, merezi dugu.

Debako Sare

Eskerrik asko, Diego. Kultur Elkarteak, zertan zabilta?

Eskerrik asko, mila esker, Diego. Zuri esker gure arbasoen altxorrek ezagutu ditugu. Belaunaldiz belaunaldi gure herriko sendabelarren ezaugarriak eta propietateak ahoz aho transmititu dira eta zurekin horiek berreskuratzea lortu dugu.

Duela zazpi bat urte hasi zen Diego gure sendabelarren KULTURA erakusten bai debarrei, bai inguruko herrietatik zetorren edonori. Urteak eman ditu sendabelarrak ezagutarazten; uken-duak, lozioak,... prestatzen erakusten, baita belar horiek non topa ditzakegun esaten ere. Debako eta inguruko ekosis-

temaren garrantzia, hori zaintzearen inportantzia eta duen balioa izan dira eman dituen ikastaroen ardatzak. Eta horrek guztiak Gela Berdea zuen bilgune.

Aurten Kultur Elkarteak ez digu aukerarik eman "gela berdea" erabiltzeko, ikastaro hauekin aurrera jarraitzeko, ezagutzak konpartitzeko, **gure kultura** ezagutzeko, gure ahaideen ezagutzak berreskuratzeke... Zergatik? Zer dela eta? Gainera lorategia "garbitu" dute. Zein da horren asmoa? Lorategi horretan hainbat landare zeuden, sendabelarrak, besteak beste; intsektuak erakartzen zituzten landareak, polinizazioa

errazten zutenak, txoriak erakartzen zituztenak... eta hori guztia, gainera, herriaren erdian.

Ez gaude ados Kultur Elkartearen jokabidearekin. Eta HUNTZAREN abesti batek dioen bezala, "Itxi dituzte ateak, itxi dituzte leihoak, zabal ditzagun ahoak". Ez gara isilduko!

*Itsaso Aramendi, Irene Askasibar,
Arantza Beristain, M^a Mar Cabeza, Elena
Egaña, Lierni Garcia, Arantza Iriondo,
Ana Larrañaga, Ana Lizarazu, Amaia
Onaindia, Marili Perosanz, Izaskun
Santos, Ainara Sedano, Itziar Uranga*

Egoera puntuala izango delakoan, hurrengo bidaiarekin amets egiten ari gara

Jakingo duzuen bezala, azaroan Tindoufeko kanpamentuetara joateko asmoa genuen, hirugarren aldiz, baina bertan behera utzi behar izan dugu bidaia.

2007an sortu zen Eskutik Eskura Taldea, Gaztelekuan, lagun talde baten ekimenez. Gali izeneko neska saharar bat udak pasatzera etortzen zen Debara, eta ikasturte batez gure artean izan genuen. Herriko gazte taldearen lagun-min bihurtu zen Gali, eta poliki-poliki hasi ziren Saharako egoeraz interesatu eta kezkatzen. Orduan hasi zen Gaztelekuak saharar herriarekin duen lotura.

Bidaia bat baino gehiago da. Debako adin-txikikoen artean parte-hartze aktiboa, ardurak hartzea sustatzen duen proiektua da Eskutik Eskura. Saharar herriaren ahotsa zabaldu, gazteen eta Debako herriaren elkartasuna handitu, giza eskubideak aldarrikatu, aniztasuna eta ezberdina denarekiko errespetua landu eta inklusioan sakontzeko proiektua da, eragile ezberdinen arteko lanketa suposatzen duena.

2007az geroztik, izaera ezberdineko ekimen ugari egin ditugu, baita zenbait bidaia ere Tindoufeko saharar kanpamentuetara, bertan proiektu ezberdinak gauzatu. Eta, ildo beretik, iaz hamabi

gazte hasi ziren prozesu honetan lanean. Ia bi urteko prozesu-hezitzailearen eta asteroko bileren ondoren, gazteek 9.000 euro lortu dituzte, zentimoz zentimo, antolatu nahi genuen bidaia autogestio-natzeko. Guztiz eredugarria den lana egin dute: ardura, antolakuntza, talde erabakiak, balioen lanketa...

Deba-Itziar-Elgoibarko ikastetxeetan eta herrian lortutako eskola eta osasun arloko 200 kilo materialekin gindoazen kanpamentuetarantz azaroaren 29an. Hiru egun lehenago material guztia bilduta eta gure mailetan eginda genituen. Baina bezperan *El País* egunkarian ikusi genuen berria; zerbitzu sekretuek ohar-tarazten zuten Espainiako erakunde eta herritarren aurkako atentatu jihadistak bat pairatzeko arriskua zegoela Saharan.

Euskadiko saharar ordezkarietara deitu eta kanpamentuetatik ez zegoela berririk esan ziguten, polizia argeliarrak eta Frente Polisarioak dena lasai zegoela ziotela. Elorriotik ere lasaitasuna helarazi ziguten. Orduak pasa ahala, komunikabide guztietan azaldu zen berria.

Guraso bilera egin genuen iluntzean, egoera aztertzeko. Proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuta –adin-txikikoak dira gazteak–, erabaki zentzuzkoena bidaia bertan behera lagatzea zela ikusi genuen. Tantz tanta lortutako 9.000



euro galdu dira, ezin dira bisak eta hegaldi txartelak aldatu, 24 orduan ez dago astirik. Hegaldia Elorrio eta Debako gazterik gabe irten zen, 70 lagunekin. Saharako familiei eta Galiri deitu genien, ez gindoazela esateko.

Bertan behera geratu zaigu bidaia, gure borondatearen kontra, baina ikas-kuntza honek saharar herriarekiko eta giza eskubideekiko dugun konpromisoa eta inplikazioa handitzeko balio izan digu. Liburuetan ikasiko ez dituzten ikasgaiak ikasi dituzte urte hauetan Debako gazteek, eta guraso eta hezitzaileok oso harro gaude gazteek erakutsi duten jarrerarekin.

Eskerrik asko, bihotzez, gure proiektuan sinetsi eta lagundu digun Deba, Itziar eta Elgoibarko jende guztiari. Egoera puntuala izango delakoan, hurrengo bidaiarekin amets egiten ari gara dagoeneko.

Debako Gaztelekua eta Eskutik Eskura

Gabonetako denda zabaldu dugu, Bidezko Merkataritza bultzatzeko

Gabon garaia gerturatzen ari den honetan, Bidezko Merkataritza denda zabaldu dugula jakinarazi nahi dizuegu. Iaz bezalaxe, Debako Andre Maria Parrokiako Kooperazio Taldearen dendan hainbat herrialdetako produktuak jarri dira salgai. Besteak beste, azken urteotan harremana dugu Togoko jendearekin eta handik ekarritako koloredun oihalekin hainbat produktu egin dira,

dendan salgai jartzeko. Togon lortutako karitearekin eginiko kremak ere badira...

Urtarrilaren 5a bitartean izango dugu zabalik denda, San Roke kalean, 6. zenbakian. Astegunetan arratsaldean egongo da irekita, 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan eta jaiegunetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Debako Andre Maria Parrokiako Kooperazio Taldea





Debarrak munduan

MIREN ETXEZARRETA

“Deban jaioa orain 38 urte, arkitektoa. Betidanik maite izan dut marraztea, leku berriak ezagutzea, ondo jatea eta, urteekin gero eta gehiago, lagunekin eseri eta berriketa luze eta lasaiak izatea”. Hitz horiekin aurkeztu digu bere burua Miren Etxezarreta Aranburuk. Torontotik (Kanada) erantzun ditu *Berriketan*-ek egindako galderak.

Non zaude gaur egun? Zergatik?

Toronton bizi naiz nire familiarekin. Nire bikotea hemen goa da.

Zerk eraman zintuen horra?

Bere garaian Bartzelonan bizi ginen, baina krisia zela eta Torontora bizitzera etortzea erabaki genuen aukera hobeen bila.

Zertan zabilta orain?

Arkitektura bulego interesgarri batean lan egiten dut, proiektu kudeatzaile bezala. Momentu honetan, esklerosi anizkoitza duten gaixoentzako zentro bat diseinatzen eta eraikitzen ari naiz Toronton.

Espero zenuen bezalakoa da? Zerk harritu zintuen?

Leku desberdinetan bizi eta gero, ez nuen askorik espero edo ez nekien nolakoa izango zen, ez neukan ideia garbirik. Azkenean, kanpoan bizitzeak malguagoa egiten zaitu hiri eta bizitzeko modu ezberdinetara moldatzeko. Gehien harritu ninduen hemengo hirigintza anarkikoa izan zen... Europarekin alderatuta, hasieran ikaragarritzko txokea da.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Nire semeari euskaraz egiten diot, gure hizkuntza da. Orain bigarrena izan dugu eta harekin ere euskaraz egiten dut. Hemen neska zarauztar bat ezagutzeko aukera ere izan dut eta noizean behin elkar ikusten saiatzen gara. Horrez gain, familia-



rekin astero hitz egiten dut eta nire semeak gure elkarrizketak jarraitzen ditu.

Jendea ezagutzen dudan bakoitzean, euskararen erabilera eta jatorriaz harro hitz egiten dut, hori bai, eta egia esan interes handia erakusten dute. Kontuan izan behar da Toronton ehunka kultura ezberdin nahasten direla.

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

Esan bezala, Kanada, orokorrean, ehunka kultura eta etorkinek eraiki dute. Sekula ez naiz kanpotar sentitu alde horretatik. Nire kalean bertan, adibidez, hungarieraz, frantsesez, polonieraz, erdaraz, hindiz, tamileraz eta ingelesez hitz egiten da... Hizkuntza ofizialak ingelesa eta frantsesa dira, baina Toronton ingelesa erabiltzen da batez ere.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Familia eta lagunak dira gehien botatzen ditudanak faltan, baita txorizoa eta foie ere noizean behin, *kar-kar!* Debara hemengo ordutegiak eramango nituzke; behin ohituta, nahiago ditut!

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Nork daki! Sekula ez dakigu bizitzak nora eramango gaituen!

Laburrean

Paisaia bat:

gure itsasoa egun goibeletan

Usain bat:

basalarrosena; txikitan ikastolarako bidean usaintzen nituen

Zapore edo jaki bat:

aitaren patata tortilla eta amaren gazta kroketak

Gustuko dut...

nire semearen barre-argara eta goizeko kafe usaina

Ez dut gustuko...

maite ditudanak sufritzen ikustea

Amets bat:

amets asko



Indarkeria matxistaren kontrako aldarria



Bost ekimen ezberdin egin dira aurtan Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan. Azaroaren 25a baino lehen eman zitzaion hasiera egitarauari. Berdintasunean oinarritutako haurrentzako ipuin kontaketa saioa izan zen hilaren 17an Agirre jauregian -50 bat haur eta guraso bildu ziren bertan-, eta Beldur Barik lehiaketari dagozkion sarien banaketa ekitaldia hilaren 22an.

Hiru lan egon dira lehian edizio honetan; guztiak kategoriatan berean (14 eta 18 urte bitartekoei dagokienez). "Diferentziak" izenburuko ikus-entzuzkoak lortu du lehen saria, 125 eurokoa -Alaitz, Ganiz, Maria, June, Lierni eta Maider dira egileak-. Bigarren saria "Ikustezina ikustarazten" lanari eman diote (100 euro), eta hirugarrena, berriz, "Errealitatea marraztuta" proiektuari (75 euro).

"Mustang" film frantziarraren emanaldia egin zen azaroaren 24an, Kultur Elkartearen, eta Irudi Biziak elkartearen Ainara Gomezek dinamizatu zuen ondorengo solasaldia. Hilaren 25ean, bestetik, elkarretaratzeko jendetsua egin zen Foruen plazan, "Emakumeenganako indarkeriak ez!" lelopean. Eta, aurtengo egitarauari amaiera emateko, "Erradikalak

ginen" bertso-antzerki ikuskizuna izan zen Agirre jauregiko Ispiluen gelan. Bete-bete egon zen aretoa.

Bigarren Berdintasun Plana

Berdintasun Plana herritarren ekarpenekin osatzeko deia egin berri du Debako Udalak. Azaroaren 25ean iragarri zuen, hain zuzen, Emakunderen babesarekin, emakume eta gizonen arteko lehenbiziko berdintasun plana ebaluatzen eta bigarren plana egiten ari dela. Prozesu hori aurrera eramanez, Daiteke aholkularitzako teknikariak informazio biltzea egiten aritu dira azken asteotan.

Guztien ekarpenak "beharrezkoak eta interesgarriak" direla ulertuta, udal langile eta politikarien ikuspegia eta iritzia jaso dute lehenik, eta hurrengo pausoa herritarren ekarpenak jasotzea izan da -galdetegi bat erantzuteko aukera izan zuten herritarrek abenduaren 3ra arte-. "Emaizta eraginkor eta errealek ateratzeko, datuak jasotzeaz gain, ezinbestekoa da herriko eragile guztien parte hartzea (udaleko langileak, politikariak, herriko elkarte zein erakundeak eta herritarrak", azaldu zuen Itziar Irizar alkateorde eta politika feministetako zinegotziak.



MAITANE ETXANIZ

Superheroiak eta heroinak

1970 eta 1980. hamarkadetan jaiotako beste askok bezala, umetako oroitzapenetan gordeta ditut "Superman"-en pelikulak. Aurreko belaunaldikoek superheroiaren komikiak irakurtzen zituzten, eta nire semeek "Hulk" eta "Thor"-en mozorro eta jostailuekin jolasten dute. Txikiak hilabeteak pasa ditut Superman-en trajea jantzita...

Zergatik dira hain erakargarriak? Pertsonalki, Superman-en figurak asko lasaitzen zizkidan umetako beldurrak; bere superbotearekin arriskuan zeudenak salbatu eta gaizkileen aurka irabazten zuen. Superheroiak gizaki arruntaren beldur eta joera berekoien gainetik jokatzen dute, mundua leku seguru eta justuagoa bihurtuz.

Estatu Batuetan, 1920. hamarkadan dute jatorria superheroiaren komikiek. Munduan gerrate odoltsu bat bukatu berri zen eta adore eta justiziaz jokatzen zuten izaki hauen istorioek arrakasta handia izan zuten.

100 urte pasa dira gerrate hura bukatu zenetik. Denbora honetan munduak ez du bakerik ezagutu; eta oraindik behar ditugu, oraindik amesten ditugu, arazoaren aurrean blokeatuta geratu beharrean akziora pasatzen direnak.

Ekainaren 29an, "Sea Watch 3" ontziaren kapitainak, Carola Racketek, 40 lagun bizi salbatu zuen. Emakume honek, superbotearekin izan gabe, bere ontzia Lampedusako portura eramanez, Italiako agintarien baimekin gabe. Justiziaren izenean, eta bere ekintzak kartzela zigor luzea ekar dezakeela jakinda, 40 pertsona portu seguru batera eramanez zituen.

Eskerrik asko, Carola Rackete. Olentzerori zure trajea eskatuko diot.

Deba eta Zumaia arteko tren zerbitzuak moztuta jarraituko du sei hilabetez

Joan den azaroaren 25etik etenda dago Deba eta Zumaia arteko tren zerbitzua, Itziar inguruan -Zankoeta 2 tunelaren ekialdeko zatian- izandako luizi batengatik. Orduetik, bi herrien arteko bidea autobusen bidez egiten ari dira bidaiariak.

Konpontze lanek bi milioi euro inguruko kostua izango dutela kalkulatu dute Euskotrenek eta Euskal Trenbide Sareak, eta tren zerbitzua berriro martxan jartzeko sei bat hilabete beharko direla aurreikusi dute.

Bien bitartean, autobus eta tren zerbitzuak ordutegi berezia izango du. Astegunetan, adibidez, bi autobus berezi irtengo dira Debatik Zumaiaruntz orduero (06:43, 07:25, 07:43, 08:25...), bidaiariak Zumaian trenetara Donostiarako noranzkoan bidaiarekin jarraitzeko. Debatik Bilbora bidean, berriz, bi tren izango dira orduero (07:03, 07:43, 08:03, 08:43...).

Asteburuetan, orduero autobus bat irtengo da Debatik Zumaiara (07:43an, 08:43an...), eta azken geltoki horretatik trenetara jarraitu beharko dute Donostiako noranzkoan doazen bidaiariak. Eta, Deba eta Matiko (Bilbo) arteko trenak normaltasunez ibiliko dira.

Ordutegiei buruzko informazio gehiagorako: 944 333 333 / www.euskotren.eus.

Hilerriko obrekin jarraitzea erabaki du Debako osoko bilkurak



Hilerriko lanak behin-behinean gelditzea eta kontratuaren etetea onartzea, hala badagokio. Hori zen eztabaidatzeko puntu bakarra joan den azaroaren 18ko ezohiko osoko bilkuran. Debarren Ahotsa-ren eta EAJ-PNVren botoekin obrekin jarraitzea erabaki zuen plenoak; EH Bildu, aitzitik, obrak behin-behinean etenda mantentzearen alde agertu zen.

Gobernu taldeak azaldu zuen behin-behinean obrak gelditzearen erabakia zergatik hartu zuen eta osoko bilkuraren esku utzi zuen erabakia berrestea. Bertan azaldutakoaren arabera, Ingurumen Fiskaltzak egindako salaketa jaso ondoren, eta ikusirik horren ondorioz sor zitekeen egoera, erabaki zuen Gilen Garcia alkateak obrak behin-behinean etetea, egoera argitu bitartean.

Denbora tarte horretan hainbat gestio egin ditu Ura agentziarekin, obrekin jarraitzeko aukera badagoen argitzeke, "uneoro, zerbitzu juridikoek egindako gomendioei jarraituz". Eta

alkatetzak uste du, epe laburrean, falta den Uraren baimen definitiboa iritsiko dela.

Zoruaren legeak ematen dion esku-menaren baitan hartu zuen alkateak obrak eteteko erabakia, baimen guztiak ez zeudela uste baitu, plenoan bertan azaldu zuenez. Dena den, bozkatu aurretik, bertan hartutako erabakiaren kontrako erabakirik ez zuela hartuko hitz eman zuen.

Bestetik, obraren kontratazio-organoa osoko bilkura denez (obrak dituen ezaugarriengatik), alkateak ulertu du hari dagokiola obraren inguruan erabakia hartzea, eta horrela egin du.

EAJ-PNVren eta Debarren Ahotsaren ustez, berriz, ez dago inolako arrazoirik obrak gelditzeko. Gainera, Ura agentziak alkateak egindako gestioen ondoren bidalitako txostenak horretarako aukera ematen duela aldarrikatzen dute. Salatu dute, halaber, haien iritzia ez dela kontuan hartu obra gelditzeko erabakia hartzeko orduan.

Hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzeko eskaerari ezezkoa eman diote Gipuzkoako Batzar Nagusiek

Debako Udaleko osoko bilkurak onartu bezala, eskaera egin da Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain har dezan Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzua -tartean Debakoa-, baina eskaerak ez du aurrera egin.

Hondartzen kudeaketa osoak "gastu handia" eragiten dio Udalari. Hortaz, garbitasunarekin egiten den bezala, sorospen zerbitzuak ere Aldundiaren esku egotea eskatuz moztua onartu zuen Debako osoko bilkurak gehiengoz, urrian egindako bileran; "aspalditik datorren eskaera da hau, dena den", gogorarazi dute udal agintariak.

Debarekin batera, Mutriku, Orio, Zumaia eta Getariak egin dute aipatu eskaera Batzar Nagusietan.

Mozioan, hondartzak egoera onean mantentzea aldarrikatzen da, baita bertan lan egiten duten pertsonen lan-baldintza duinak izatea ere. Sorospen zerbitzua kudeatzeko eskatu diote Foru Aldundiari -Bizkaian egiten den bezala-, eta, hori bermatu ezean, diru-laguntzak eman ditzala. Baina kostaldeko bost herrietako udalek egindako proposamenari ezezkoa eman diote Gipuzkoako Batzar Nagusiek, EAJ eta PSEren botoekin.

Bideen ordenantzak, denon artean



Azaroan eta abenduan egindako bilerei jarraipen bat eman nahi zaie oraingoan, ekarpenak jaso eta Bideen Ordenantzari forma ematen hasteko. Itziarren egingo da hurrengo batzarra, urtarrilaren 8an

Gure herria lurralde zabala izanik, herri-bide, pista eta errepide ugari zeharkatzen dute. Errepide nagusiak Diputazioaren menpe daude, berea da konponketa eta mantenuaren ardura. Bide horiez gain, berrogeita hamar kilometro baino gehiago daude baserrietako bide eta bestelakoetan. Bide horiek Udalaren ardura izanik, erabilera arautzeko asmoz zirriborro bat lantzen ari da Debako Udala Itziarko Auzo Udalarekin batera.

Gaiak duen konplexutasuna ikusirik eta horrelako araudi batek duen eragina kontuan hartuta, ezinbestekoa zaigu nekazari sektorearen iritzia jasotzea. Horrelako arautegi batek guztion elkarlana beharrezkoa du. Nekazaritza inguruetak bideen egoera Debako Udalaren eta Itziarko Auzo Udalaren ardura den heinean, guztiok dugu zer esana, guztiok dugu zer eginga eta guztion esku dago errepide horien egoera mantendu eta hobetzea, betiere bakoitzak bere ikuspegiak defendatuz.

Bide horien egoera jasotzen duen inbentario bat eginga dago eta azken urteetan inbertsio handiak egin dira konpontze lanetan. Gure inguruak nekazaritza guneak izanik, gero eta ibilgailu astunagoak jasaten dituzten bide horiek babestu eta baserrien arteko loturak ziurtatzea du helburu

lantzen ari garen arautegiak.

Inguruetak herrietan erabiltzen dituzten irizpideak oinarritzat hartuta, gure lurraldeari egokitutako protokolo bat sortzea da asmoa. Guztion artean adostu nahi ditu Udalak arau hauek, guztion ardura baita bide horiek egoera onean mantentzea. Gai hau jorratu eta ordenantzaren nondik norakoak azaltzeko, lau bilera egin dira nekazaritza guneetan bizi diren herritarrekin.

Lehen bilera hauetan, argi geratu da arautegi honen beharra. Bide horiek osatzen duten sarea ezinbestekoa zaio landa-inguruari. Askotan, bideak ez daude nahiko gure egoeran eta erabilerari, denon artean, irtenbide egoki bat emateak, hauen mantenua hobetzeaz gain, etorkizuneko konponketak arinduko lituzke.

Azaroan eta abenduan egindako bilerei jarraipen bat eman nahi zaie oraingoan, ekarpenak jaso eta Bideen Ordenantzari forma ematen hasteko. Bilera Itziarko Burugorri Gainean izango da, urtarrilaren 8an (asteazkena), 19:00etan. Bertan jasotakoak landu ondoren, ordenantzak osatu eta Debako Udalak plenoan onartu beharko ditu. Ondoren, eta indarrean sartu aurretik, alegazioetarako epea zabalduko da.

*Debako Udala
eta Itziarko Auzo Udala*



MIRIAN ARRIZABALAGA

Bestelako gorritasun bat

Bada urte bat Gipuzkoa eta Bizkaiko herrietako aretoak goraino betetzen zirenetik baso politika eta pinuaren gaitzaren hitzaldietan. Arrakasta izateko gai *top-a* bihurtu zen, 2018an gaitzak izan zuen ebo-luzioarekin kezkatuta soluzio bila gehienak eta baso politikak eragindako egoerari alternatibak entzun nahian bestek. Momentuz ez bata ez beste ez du konponbiderik.

Pinuaren gaitzaren kasuan klimak lagundu du; onddo bat izanik, bere izateko arrazoi nagusietako bat tenperatura eta hezetasun baldintzak dira eta 2019an ez dira bere alde egon, itxuraz. Izurria geratu da, baina pinua mozteko psikosia zabaldu-ta dago sektorean. Pinua gorritzen ari zela konturatu zineten bezala, orain mendia gorritzen ari dela ere ikusiko zenuten. Horrek hemen egurra ateratzeko moduan du jatorria, *matarrasan*. Lan egiteko modu honek arbolez gain lursaileen dauden bestelako landare espontaneoak ere garbitzen ditu eta paisaia gorritua agertzen da. Horri hemen ditugun aldapak eta euri kopurua gehitzen diogunean, berez pinuaren gaitzak sortu zuena baino alarma handiagoa piztu beharko litzateke, galduko duguna ez delako 20-30 urtean hasi den egurra, baizik ehunka urtean sortu den lurra. Oraingo are-rioa erosioa da eta ate denak ireki dizkiogu bere lana egin dezan.

Neurri batean pinu jabeen mozketarako presa ulertzekoa da, urteetan egindako lana eta inbertsioa kolokan ikusten direlako, baina bere onena pasa zaion egur bat jada saturatuta dagoen merkatu batean saltzeko egoera ere ez da egokiena. Beste behin, haizea kontra sektorean.

Lezioa ikasia behar genuke: monokulti-boak epe motzean etekinak ematen ditu, baina, epe luzera, arazo konponezinak. Nora iritsi beharko ginatekeen azaltzen duten ereduak badaude; oraingo egoeratik trantsizioa nola gauzatzea dago erronka handiena.

GARAZI PASCUAL Kable gaineko dantzaria

Txikitan "saltinbanki" samarra zela aitortzen badu ere, 18 urterekin ezagutu omen zuen zirkua Garazi Pascualek. Hamabi urte pasa dira ordutik, eta kable gaineko dantzaria da gaur egun. Iruñean, Italian, Parisen... hainbat urtez ikasten aritu ostean, Tolosan bizi da Lasturko Goikola baserriko alaba gazteena. Gustura hartu dugu bere bisita *Berriketan-en*; zirkuaren munduan egin duen bidea eta, besteak beste, esku artean dituen proiektu ezberdinak izan ditugu hizpide elkarrizketa honetan.



Alberto Beloki

"Zirkua hemen modan dagoela esango nuke; momentu onean iritsi naiz Euskal Herrira"

Zirku munduan zabilta gaur egun, baina hona iritsi aurretik egin duzun bidea ezagutu nahiko genuke lehenik. Zein izan da zure ibilbidea?

Batxilergoa bukatu baino hiru hilabete lehenago jakin nuen zirkua existitzen zela. Familiarekin txikitatik joaten ginen gazta saltzera Erdi Aroko azoketara eta egia da nahiko saltinbankia nintzela; malabareekin, diaboloarekin, pilotekin... ibiltzen nintzen, baina esango nuke zirkua 18 urterekin ezagutu nuela. Ahizpari esker jakin nuen Iruñean bazela zirko eskola bat, Oreka izenekoa –gaur egun ez dago–; eskolan sartu eta urtebete egin nuen bertan. Gero bideak zabaltzen joan ziren... Italiako prestakuntza eskola baterako castinga egin nuen, onartu egin ninduten eta bi urtez egon nintzen han.

Italiatik Frantziara ere joan zinen gero.

Bai. Italiako eskola hartan bi urte egin ondoren, han gelditzeko aukera izan nuen; aukeraketa bat egin zuten eta hainbat ikasle gelditu ginen hirugarren urtean ikastaro pilotu bat egiten, eta ikuskizun bat sortzen. Han geundela jakin genuen goi mailako eskolak ere

bazirela, espezializazioak eta abar; Europa mailan batzuk badaude, baina ez dira asko, zazpi edo zortzi izan daitezke guztira... Parisko eskola batean hartu ninduten ni, eta beste hiru urte egin nituen han, goi mailako titulua ateratzen. Antzerki Unibertsitatearekin, Zirku Profesional Garaikideko lizentziatura lortu zuen Europako lehenengo promozioa izan zen gurea.

Ikasteko, mundu honetan trebatzeko... derrigorrezkoa zen (eta da) kanpota, atzerrira irteeta?

Aukeratzen duzun bidearen arabera izan daiteke hori, eta nik bide hau hartu dut. Espainian, adibidez, bi prestakuntza eskola daude –bata Bartzelonan eta bestea Madrilen–, eta horietatik joan zaitezke gero goi mailako eskola batzuetara edo Frantziako beste eskolaren batera ere... Mundu honetan oso jende gutxi mugitzen da mundu mailan, eta zuzenean jokatzeko duzu Europa mailan, nik egin dudana ibilbidearekin esan nahi dut. Hemen, Euskal Herrian, bi edo hiru gara ibilbide hau egin dugunak, eta zirkuko beste artista guztiak hemen entrenatu dira, bertako egoera eta baldintzekin. Bide zailagoa iruditzen zait niri; azken

batean, eskolak zera ematen dizu: denbora gutxian iristea emaitza hobek lortzera, zure kabuz ikasten arituz gero baino azkarrago. Badaude malabarista izugarriak, adibidez, ez direnak eskolatik inoiz pasatu, baina hartzen duzun diziplinaren arabera, batzuetan ezinezkoa da hori dena zure etxean egitea, eskolatik pasa gabe.

Aipatu duzu zirkuarekin ez duzula izan harreman zuzenik txikitatik. Kasualitatea izan al da bertan amaitzea?

Nik ez nekien ezer zirkuaz, ideiarik ere ez neukan. Zirku ikuskizunak ez neuzkan ikusita, hemen inguruan ez dugulako izan halakorik. Azokekin eta abar banuen lotura bat, eta hori ere bada zirkuaren beste ikuspegi bat, baina zer egingo nuen ez nekien txikitan. Nire sentsazioa da nolabait "nahi gabe" joaten zarela sartzeko mundu honetan: hasten zara, jarraitzen duzu, ateak zabaltzen joaten dira edo ahal dena ematen diozu. Probatzen joaten zara, egunero entrenatzen, fisikoki, mentalki eta guztia... nire kasuan, hazkunde pertsonala ere bada, ikasten daramazu zure eguneroko bizitza. Zurekin ari zara; zu eta zure gorputza...

Kable baten gainean egiten duzu dantza gaur egun. "Kable gaineko dantzaria", ekilibrista, zirkuko artista, antzezlea... Zer terminorekin sentitzen zara erosoago?

Artista ez naiz sentitzen, beno aldi berean hori ere banaiz, baina... kable gaineko dantzaria naiz ni.

Hainbaten ustez, azken urteotan asko eboluzionatu du zirkua arte eszeniko gisa. Zer diozu zuk? Osasuntsu dago sektorea?

Osasuntsu dago, bai. Nire orain arteko ibilbidea ez dut hemen egin, kanpoan ibili naizelako hasi nintzenetik, baina itzuli naizenean konturatu naiz gauza asko egiten direla hemen, eta mugimendua egon badagoela: zirkua gero eta gehiago programatzen da, jaialdi ugari daude Euskal Herrian, eta Eusko Jaurlaritzak lehen ez zegoen sail bat atera du (zirkua arena), ofiziala, dirulaguntzak jaso ahal izateko eta abar... hori azken urteetako gauza da. Ez dakit benetan esaten, baina nik uste modan edo goraldian dagoela. Euskal Herrira momentu onean iritsi naizela esango nuke (*kar-kar!*).

Zirkuz bizi zara orain? Profesionala zara? Posible da?

Bai. Asko mugitu behar gara eta lan egin behar dugu, beste guztiek bezala, baina posible da.

Zirkuko bizimodua ederra bezain gogorra dela esan izan da. Zer deritzozu?

Egia dela. Ikuskizuna sortu arteko lana dago lehenengo, eta gero, behin ikuskizuna atera ondoren, ikuskizun horri ibilbide bat eman behar zaio. Hori da gogorrena nire ustez. Azken finean, kable gainean jartzea eta ikuskizuna eskaintzea lanik errazenetakoa bihurtzen da niretzat, baina gero argazkiak atera behar dira, *promoa* egin, bideoa, trailerra... lana ez da bukatzen. Orain, adibidez, informazioa biltzen nabil, ikuskizunak saltzen hasi behar naiz, Euskal Herri osoan zeinekin hitz egin behar dudana ikusi, administrazio lanak egin eta abar. Orduak pasa behar dituzu horretan ere, jaialdi batean parte hartu ahal izateko data bat lortzeko eta bakarrik aritzea eta hori dena egitea lan handia da azkenean. Seguru sentitzen naiz egiten dudanarekin eta beldurrik ez dut, baina gauza asko egin behar dira.

Espazio edo gune konkretu bat behar izaten duzu, adibidez, ikuskizunak prestatu eta materiala gordetzeko?

Ezinbestekoa da espazio bat izatea; kontzentratzeko behar duzulako, adibidez, eta materiala gorde eta dena prestatzeko ere beharrezkoa delako. Gaur egun, Asvinenea izeneko gunea kudeatzen dugu Adunan. Arte eszenikoen laborategia da, duela 15 urte sortua. Hasiera batean txotxongiloak, antzerkia, clown, zirkua pixka bat... egiten zen bertan, eta azken bi urteotan gu ari gara kudeatzen; hiruko talde pedagogiko bat gaude bertan klaseak ematen. Eta, era berean, materiala lagatzeko, entseguetarako... denetarik egiteko erabiltzen dugu gure espazioa.

"Ondo pasatzea, barre egitea... oso ondo dago, baina zirkua ez da hori bakarrik, askoz gehiago da"

Irakasle ere aritzen zara, hortaz...

Bai, hala da. Tailerrak egiten ditugu (asterokoak edo intentsiboak), orain gabonetako zirkua familiarraren tailerra ere izango dugu... Gustura ibiltzen naiz irakasle lanetan ere.

Gure Zirkuarekin lanean ibili zara azkenaldian; berriki amaitu dituzue aurtengo emanaldiak. Zer moduzko esperientzia izan da?

Ona, beste esperientzia bat izan da. Zirkua bizimodu bat da eta bertan sartzen zarenean, eskoletan edo baita proiektuetan ere gero, azkenean zure lankideak direnak aldi berean zure familia ere bihurtzen joaten dira. Eskolan edota lan guztietan daude gauza batzuk ez dutenak funtzionatzen, eta beste batzuk funtzionatzen dutenak, bestela *kaput* egiten dute. Hau beste esperientzia bat izan da niretzat, beste jende batekin lan egin dut, polita izan da etxean egin dugulako, Euskal Herrian, eta oso interesgarria ere bai. Bizitzan zirkua ikustera joan ez diren pertsonak izan ditugu Gure Zirkua ikusten, adin guztietakoak gainera!

Bestelako proiektu batzuetan ere ibili zara, ezta? Zer duzu orain esku artean?

Bai, lanak uztartzen ibili naiz. Gure Zirkua emanaldietan aritzeaz gain,

adibidez, Markeliñe konpainiarekin ere banabil lanean, *Julietas*, *Romeo Circo* ikuskizunarekin; Romeoren klasiko bat da, zirkua lengoaiarekin, eta antzokian sartu den lehenengo ikuskizuna izan da.

Horrez gain, Asvinenea guneari bizitza ematen nabil eta nire ikuskizun propioa ere badaukat, *Erraia* izeneko. Hori sortzen ibili naiz Euskal Herrira iritsi nintzenetik.

Zure proiekturik pertsonalena al da?

Erraia-k ni islatzen nau, nire lana, nire ibilbidea... dena. Horixe da orain esku artean daukadan ikuskizuna, eta Euskal Herritik zabaldu nahiko nuke. Nire ustez, oso interesgarria da, ikuspuntu europar garaikide bat dauka, baina oso material ezagunak agertzen dira, guk ezagutzen ditugunak: etxean beti izan dudana artilea, adibidez. Gureak diren gauzez ari naiz hitz egiten: identitatea, herria... baina beste modu batean erakutsita, eta nik uste interesgarria dela buruari pixka bat emateko, gogoeta apur bat egiteko, bakoitzak ea zer sentitzen duen ikusteko. Ondo pasatzea, barre egitea, zerbait polita ikustea... oso ondo dago, baina zirkua ez da hori bakarrik, askoz gehiago da. Lantalde bat dago ikuskizun honen atzean, eta esango nuke *Erraia* dela "nire lana".

Goikola baserriko alaba kable gainean dantzan ikusteko aukerarik izango al duzu laster inguruotan?

Hori nahiko nuke, aukerak aztertzen nabil. Egia esan, orain arte zorte handia izan dut. Kablean aritzen den inor ez dago Euskal Herrian eta nahiko maila altuarekin hasi naiz lanean, egiten nituen gauzekin etorri zaizkit eskaintzak; ni ez naiz ibili jendeari deitzen, haiek deitu didate, eta erregina baten pare egon naiz. Orain bestelako lana egitea tokatzen zait niri.



Imanol Manterola

Arrillaga eta Ibarrola mutrikuarrek irabazi dute aurten ere nesken pala txapelketa



Deba, Elgoibar, Mutriku eta inguruko beste txoko batzuetatik gerturatutako berrogeitik gora emakumek parte hartu dute aurtengo emakumezkoen pala txapelketan -21 bikotek guztira-. Aurtengoa zortzigarren txapelketa izan da, taldeko kide zen Maite Etxeberriari omenaldia egiten dion bosgarrena.

Irailaren 29tik azaroaren 30a bitartean, lau taldetan elkarren kontra jokatzen aritu dira ostegun eta igandean. Talde bakoitzeko lehenengo lau bikoteek final zortzirenak jokatu dituzte, eta Barruetabeña ahizpak -Maite eta Iratxe- eta Eba Ibarrolak eta Idoia Arrillagak osatutako bikote mutrikuarrak sailkatu ziren finalerako.

Finala azaroaren 30ean (larunbata) izan zen eta Itziar Albizuk eta Imanol Etxeberriak egin zituzten epaile lanak hitzorduan. 3. eta 4. postuak jokatu ziren lehenengo, Sonia Tomas-Irati Ziaran debarren eta Yoli Mateos-Nahia Abad elgoibartarren artean, eta azken bikote hori nagusitu zen (22-20). Txapelketan parte hartu duen bikote batek agurra dantzatu zien finalistei.

Iaz bezalaxe, txapelketaren finala mutrikuarren artean jokatu zen berriz. Ordubete inguruko partidaren ostean,

Ibarrola eta Arrillaga nagusitu ziren azken lehian, 22-13 emaitzarekin. Erraz lortu zuten, bigarrenez, txapela Barruetabeña ahizpen aurkako norgehiagokan.

Berrikuntzarik ere izan du aurtengo pala txapelketaren sari banaketak. Lehenengo lau sailkatuei ez ezik, aurten, lehenbizikoz, bost urteotan partida gehien jokatu dituenari ere eman diote saria antolatzaileek. Sonia Tomasek lortu du Maite Etxeberria saria, 39 partidako ibilbidea egin izanagatik. Saria lortzeko atarian geratu dira Iratxe Astigarraga eta Sheila Gonçalves ere.

Iruleak Emakume Pilotariak bi saski zozketatu zituen bazkideen artean; Ieraeneak eskainitako produktuak eta Elene Lizarralde kazetariak emakume raketistei buruz idatzitako "El silencio de Clara Lyndon" liburu bana lortu zuten irabazleek.

Frontoiko saioari amaiera emateko, minbizia duten haurrak gogoan, "Lau Teilatu" abestiaren bertsioa abestu zuten txapelketako parte-hartzaileek, Iruleak-eko bazkideek eta Aldats pilotalekura hurbildutako hainbat eta hainbat lagunek.

Bestetik, aurreko urteetako ohitura mantenduz, txapelketari amaiera biribila emateko, bazkaria ere egin zuten gero.

Kosme Fernandezek irabazi du II. Sorginetxe Big Wave Erronka

Azaroaren 20an (asteazkena) jokatu zen Sorginetxe Big Wave Erronkaren bigarren edizioa. Olatu Handien Euskal Herriko Surf Txapelketa urtarrilaren 12tik martxoaren 31ra bitartean jokatu zela iragarri zuten hasieran, baina hainbat hilabetez atzeratu zen hitzordua, itsasaldi egokienaren zain zeuden eta.

18 surflari aritu ziren lehian, sei lagunek osatutako hiru txandatan. Horietako sei iritsi ziren finalera eta Kosme Fernandez mundakarra nagusitu zen. Iker Amatriain gazte zarauztarrak bigarren postua eskuratu zuen, eta haren atzetik sailkatu zen Indar Unanue -iazko irabazlea- hirugarren postuan. Ibon Amatriain -Ikerren aita- laugarren geratu zen eta Debako Zurrumbilo elkarteko Oier Bartolomek eta Eritz Urrosolok lortu zituzten bosgarren eta seigarren postuak, hurrenez hurren.

Aurten, lehenbizikoz, olatu handietako txapelketa batean

inoiz parte hartu duen lehen neska izan da lehian Deban, Nadia Erostarbe zarauztarra, orain arte gizonezkoen txapelketa izan den honetan emakumeei ere atea zabalduz.



EHSF

Kimetz Etxabe txirrindularia maila berriari ilusioz eta errespetuz begira



Kimetz Etxabe txirrindulari debarrak uztailaren bukaeran eman zion amaiera kadete mailari. Errepideko denboraldi on bati atea itxi, oportetan gozatu eta iraila heltzearekin batera hasi zen denboraldi berrian pentsatzen Viveros San Anton Zumaiako Txirrindulari Elkarteko kidea, urrian denboraldi-aurreari ekiteko.

Denboraldi berriak aldaketak ekarriko dizkio debarrari. Aldaketa horien artean garrantzitsuena, maila aldaketa, 2020an jubena izango baita. Ondorioz, bestelako aldaketa batzuk ere izango ditu: lasterketak dezente gogortuko dira eta, lehenbizikoz, itzuliak ere sartuko dira egutegian -Gipuzkoako Itzulia eta Iruñerrikoa-. Hau guztia kontuan hartuta, oso-oso garrantzitsua da prestaketa lanak ondo egitea, eta esparru horretan ere badu Kimetz Etxabek beste berrikuntza bat, prestatzaile berria du eta.

Azaroan pistako denboraldia hasi zen, eta aurten ere pistaren aldeko apustua egin da prestakuntzan, errepideko lehen lasterketetara sasoiko heltzeko; pistako lasterketak heltzearekin batera, selekzionako

deiak iritsi dira; lehenengoa Gipuzkoako selekzionako, eta jarraian Euskadiko selekzionako.

Jubenil mailako pistako lehen lasterketetan oso ondo moldatu zen debarra eta, ondorioz, bere taldekide Aitor Agirrerekin batera Gipuzkoako mailota defendatuz Bordelera joan zen. Bertan, Frantziako pistako goi eskoletako txirrindulariekin lehiatu ziren, finaletarako arazorik gabe sailkatuz. Finaletan ere oso maila onean ibili ziren, podiumetik kanpo gelditu baziren ere.

Espainiako kopan lehiatuko da

Denbora gutxi pasa da denboraldia prestatzen hasi zenetik, baina erakutsi duen maila ikusita, pedal kolpe horrekin, Euskadiko selekzionarekin Espainiako kopan lehiatuko da Sevillan; urte berriak Portugalerako bidaiaria ekarriko dio. Hortik aurrera etengabeko joan-etorrian ibiliko da Kimetz Etxabe. Apirilean Espainiako txapelketetan parte hartuko du, pistako denboraldiari amaiera eman eta errepidean erabat zentratzeko.

Martxoan hasiko dira errepideko lasterketak, baina pistako Espainiako txapelketak Aste Santuan izanik, dezenteko ahalegina egingo du debarrak dominen borrokan ibili ahal izateko, maila berrian egiten dituen lehen urratsak dira eta.

2020. urtea aldaketaz beterik dator Etxaberentzat. Denboraldiari errespetuz begiratu arren, erakusten ari den gaitasunarekin, ilusioz dago, eta urratsez urrats helburuak bete daitezkeela uste du txirrindulariak.

XI. San Silbestrea, urteari agur esateko



11. edizioa izango du aurten Xtrem Taldeak antolatutako San Silbestre lasterketak eta, urtero legez, abenduaren 31n jokatuko da, goiz partean.

Etxeko txikienentzat (4 eta 7 urte bitartekoak), 200 metroko lasterketa prestatu dute; 11:15ean emango zaio hasiera. 8 eta 10 urte artekoek ordu laurden beranduago (11:30ean) izango dute euren txanda, 400 metroko lasterketa egiteko. Hirugarren hitzorduan (11:45ean) 11 eta 13 urte bitartekoek parte hartuko dute, 1.000 metroko proban. Eta nagusiek (14 urtetik gorakoek) bost kilometroko ibilbidea osatu beharko dute; 12:00etan hasiko da hitzordua (Turismo bulegoan eman behar da izena, 5 euro ordainduta; gaztetxoek doan).

Igon Mancisidor pozik Donostiako maratoian lortutako emaitzarekin

Emaitza txukuna lortu zuen Igon Mancisidorrek joan den azaroaren 24an jokatutako Zurich Donostiako Maratoian. Bi ordu, 35 minutu eta 58 segundo behar izan zituen maratoia amaitzeko (42 kilometro), eta sailkapen orokorrean 23. postuan bukatu zuen. Iñaki Arakistain debarrak duela zenbait urte maratoian ezarritako errekorra hautsi du horrela Mancisidorrek.



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Joxemari Carrere eta Jon Maia kontu-kontari, Zuhatzak antolatutako hitzorduetan



Udazken-neguko kultur eskaintzari bere ekarpena egin nahian, gazte eta helduei zuzendutako bi ekimen antolatu ditu Zuhatza Euskara Elkartek aurtengo azaroan.

Hilaren 21ean, "Maitasunaren arbola" ipuin kontaketa saioa egin zuen Joxemari Carrere (Pasai Donibane, 1963) kontalari eta aktoreak Kultur Elkarteak. "Zer da erotismoa?" galdera bota zuen saioaren hasieran, baina erantzunik ez zuen jaso. "Zaila zaigu erotismoa zer den definitzen, horregatik hitz egin dezagun sexuaz; erotismo aurreko ipuinak entzun ditzagun, ipuin pre-erotikoak". Eta halaxe aritu zen ordubeteko pasatxo kontu-kontari.

Ipuin pre-erotikoen emanaldiak ibilbi-

de bat proposatu zien bertaratutakoei, munduko kultura ezberdinen mito eta ipuinetan barrena, sexu kontuak ahoan. Munduaren eta erotismoaren sorrera Carrereren ahotik entzuteak hainbat barre-algara eragin zituen aretoan.

Bestelakoa izan zen astebete beranduago, azaroaren 28an hain justu, Jon Maia (Urretxu, 1972) bertsolari eta idazleak eskaini zuen hitzaldia. "Berriak jaio ginen" izenburupean, bere esperientzia pertsonalaz aritu zen gonbidatua.

Anekdotak eta pasadizoz betetako kontakizuna egin zuen. Bere sustraietara jo zuen lehenik, bere familiaren jatorriaz hitz egiteko; Zamorakoa du aita eta Extremadurakoa, berriz, ama. Bere *abuelo*

eta *abuela* lan bila etorkin bezala heldu ziren herrian, Urretxun, jaio zen Maia; eta zazpi urte zituela joan ziren etxeok Zumaiara bizitzera.

Espainiatik Euskal Herrira etorritako familia etorkin horren semeak gaur egun arte egindako ibilbideaz aritu zen gero, eta errelato pertsonal bat eginez azaldu zuen guraso kanpotarrak zituen ikastolako ume eta bertsolariak nola lortu zuen bere jatorriarekin eta bere buruarekin bakeak egitea.

Gatazka identitarioa, euskararekiko esperientzia pertsonala, bertsolaritza... hizpide hartuta, bizipen eta hausnarketa ugari partekatu zituen hitzaldira hurbildutako hamarnaka lagunekin.

"2020ko Euskaraldia prestatzeko aktibazio saioak egingo ditugu. Zatozte!"



Joan den azaroaren 29an izan genuen Kike Amonarriz ispiluen gelan. Datu asko eman zituen eta gaur egun euskarak eta euskaldunok ditugun erronka nagusiak azaldu zizkigun. Bereziki bidegurutzearna azpimarratu beharko litzateke, behar bada. Azken urteotan euskalgintzan behin eta berriz aipatzen dena.

Euskara biziberritzeko lanetan hasi ginenean hezkuntzan jarri ziren indarrak eta baliabiderik gehienak, garai hartan horixe baitzen premia: galdutako euskaldunak berreskuratzea, euskaraz egin ahal izateko nahikoa jende izatea. Geroztik aurrerapen handia egin da zentzu horretan. Momentu honetan, Deban, 40 urtez azpiko herritarrek, oro har (despistaturen bat edo beste eon daitekeen arren), bada-kite edo ulertzen dute euskaraz. Kontua

da lehenengo urte haietan ezagutzak erabilera ere eragina izan zuen arren, azken urteotan ikusi dela igoera hori geratu egin dela. Ezagutzen hazten jarraitu badugu ere, ez dugula neurri berean erabilera irabazi. Hor ikusten da bidegurutzeara.

Hezkuntzak ezin du gehiago eman. Irabazi beharrekoa irabazita daukagu eskolan (Deban %100 eskolatzen dira euskaraz). Erabilera bai ala bai asmatu beharra daukagu, beraz, euskarak aurrera egiten jarraitzea nahi badugu. Erabiltzeko esparruak irabazten baditugu, aurrera egingo dugu; ez baditugu, atzera (gaelikoarekin gertatzen ari den antzera).

Eta erabili jendartean egiten da: lanean, aisialdian, esparru asoziatiboan... Horieta eragitea dugu erronka. Horixe da Euskaraldiaren 2. edizio honen berrikuntza: norbanakoez gain, entitateetan

eragitea, erabilera esparru seguruak erakitzen hastea. Eta hori herritarrok egingo dugu, egitekotan. Gu garelako kultur edo kirol elkarteetan gabiltzanak; gu garelako lankideekin harremanak ditugunak,...

Eta hori diseinatu egin behar da. Euskaraz egiteko esparru berriak zabaldu nahi ditugunok elkartu eta zer egin dezakegun, nola egin dezakegun, noraino iritsi gaitzkeen, ze bitartekorekin, ikusi eta adostu behar dugu. Eta martxan jarri.

Horretarako egingo ditugu, hain zuzen, aktibazio saioak: abenduaren 14an eta 21ean, larunbatak, ispiluen gelan, goizeko 10:00etatik 12:00etara.

Euskaraz bizi nahi dugunok hortxe ditugu bi hitzorduak. Zenbat eta gehiago, orduan eta errazago; orduan eta irismen handiago. Zatozte.

Debako Euskaraldia

Ipuin lehiaketari dagozkion sariak banatu dira Mendatan

Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarteak ipuin lehiaketa antolatu dute aurten ere elkarlanean, eta irabazleek Euskararen Nazioarteko Egunean jaso zituzten sariak institutuak. DBHko ziklo bakoitzean, bi sari nagusi banatu dira; ebook bat jaso dute opari lehenengo saria irabazi dutenek eta Arkatzen erabiltzeko 60 euroko opari txartela bigarren saria lortu dutenek. Sarietz gain, hainbat ipuinek aipamen berezia izan dute aurten; ziklo bakoitzeko bi lanek, hain zuzen.

Epaila lanetan Nagore Dorronsoro, Amets Carrillo eta Zuhatzako beste kide batzuk aritu dira. Haien erabakiz, lehen zikloan (DBHko 1. eta 2. maila) Anitz Zurita gailendu da "Oporretatik bueltan" izenburuko lanarekin, Lide Lobetek jaso du bigarren saria "Greziako sekretua" ipuinarekin eta aipamen berezia lortu dute Marina de Antak -"Larunbat gau beldurgarria" lanarekin- eta Garazi Urteagak -"Orduan arratsaldeko 17:00etan?" ipuinarekin-. Bigarren zikloan (DBHko 3. eta 4. maila), berriz, Maite Aperribai nagusitu da "Gau ilunean" izenburuko lanarekin, Ane Gonzalezek jaso du bigarren saria "Mia" idazlanarekin eta Martina Sotoren -"Kondairen



kondaira"- eta Irati de Antaren -"Elene"- lanek eraman dituzte aipamen bereziak.

Aipatutako idazlan sarituak *Berriketan* aldizkarian argitaratuko dira hurrengo aleetan. Zorionik beroenak irabazleei!!

Lan ona egin dute bi talde debarrek Debarreneko Euskararen Ginkanan

Abenduaren 4an jokatu zen, Eibarko Coliseoan, Debarreneko Euskararen Ginkanaren finala. Euskararekin eta euskaraz dibertitzeko lehiaketa honetan, eskualdeko 21 ikastetxe edo taldek hartu dute parte. Internet bidez burutu dituzte probak lehenengo fasean eta puntu gehien lortu duten lau taldeak pasa dira finalera. Debari dagokionez, Martintxo Arrantzale taldea zuzenean sailkatu zen. Sonakay taldea, berriz, Eibarko Urkirekin

iritsi zen berdinduta, 4. postura.

Hilaren 4an, berdinketa hausteko proba bat gainditu behar izan zuten bi taldeek, finalean zein sartuko zen erabakitzeko; Sonakay irabazi zuen. Finalean, beraz, Debako bi taldeak aritu ziren lehian.

Finala hasita, 4 proba burutu behar izan zituzten taldeek. Lehiaketaren 1. fasean, hizkuntza ekologiararen eta hizkuntza aniztasunaren inguruan landu zituzten

hainbat gairekin zerikusia zuten probak izan ziren. Horrela joan ziren puntuak irabazten. Amaieran, talde bakoitzak eskuratutako puntuak zenbatuta, Soralaruzeko Soragarriak taldea izan da aurtengo irabazlea, 800€ eskuratuz ikasketa-bidaia-ko. Beste hiru taldeak puntutan berdinduta geratu direnez, 2. saria (200€) eta 3. eta 4. sariak (100€ko bi bono Eibarko merkataritza guneko dendetan gastatzeko) denen artean banatzea erabaki dute.

ZUHATZAK BEHAR DITU:

EUSKARA ELKARTEKO DINAMIZATZAILEA

ESKAINTZEN DA:

*Jardun erdiko lan kontratua

ESKATZEN DA:

- *Euskara maila oso ona izatea, ahoz zein idatziz
- *Harremanetarako, taldean lan egiteko eta koordinatzeko gaitasuna
- *Hizkuntza normalkuntzako lanetan eskarmentua: koordinazioa eta kudeaketa, administrazioa, aisialdia, kultura...
- *Informatika programak eta teknologia berriak menperatzea

KONTUAN HARTUKO DA:

- *Euskalgintzan eskarmentua izatea
- *Herriko elkartegintza ezagutzea eta esperientzia
- *Kudeaketa ekonomikoan eskarmentua izatea
- *Zuhatza Euskara Elkarteko bazkide izatea

BERRIKETAN ALDIZKARIRAKO KAZETARIA

ESKAINTZEN DA:

*Jardun erdiko lan kontratua

ESKATZEN DA:

- *Kazetaritza, komunikazio edo pareko unibertsitate-titulua
- *Euskara maila oso ona izatea, ahoz zein idatziz
- *QuarkXPress eta InDesign programak erabiltzen jakitea
- *Euskarri digitaletan esperientzia (sare sozialak, webgintza...)

KONTUAN HARTUKO DA:

- *Kazetari lanetan eskarmentua izatea
- *Informatika programen ezagutza
- *Argazkigintza eta bideogintza menperatzea
- *Deba edo inguruetan bizitzea edo zonaldea ondo ezagutzea
- *Zuhatza Euskara Elkarteko bazkide izatea

Curriculumak aurkezteko epea: 2020ko urtarrilaren 20a
Nora bidali: zuhatza2@gmail.com





“Gu prest gaude lan egiteko, baina ez gara inora iritsiko zuen laguntzarik gabe”

Aurten ere martxan dago Euskara Batzordea. Hori goiko hamabi lagunek osatzen dute taldea: Unax Arratibel, Xabi Txurruka, June Sudupe, Xabat Urkaregi, Nerea Zubia, Ander Villa, Jon Ander Osa, Danel Aranberri, Julene Perez, Ander

Zabala, Oinatz Urbieta eta Terese Iriondok.

Oraingo honetan, batzordeko bi kideri egin diegu elkarrizketa; June Sudupek eta Xabi Txurrukak erantzun dizkigute Euskara Batzordearen inguruan egin dizkiegun galderak.

Zer helburu du Euskara Batzordeak?

Xabi Txurruka (X.T.): Ikastetxean euskararen normalkuntza eta erabilera sustatzea da Euskara Batzordearen helburu nagusia.

Zergatik erabaki zenuten talde honetako kide izatea?

June Sudupe (J.S.): Talde hau interesgarria iruditu zitzaidalako animatu nintzen; ekarpen bat egin nahi nuen ikastetxean eta atentzioa eman zidan. Ez naiz damutzen nire erabakiaz.

X.T.: Bai horixe, iritzi bera daukat.

Zuen ustez, beharrezkoa al da Euskara Batzordea? Zergatik?

X.T.: Bai, gero eta gutxiago entzuten delako euskara gazteen ahotan.

J.S.: Arrazoi duzu, herrian ez da hainbeste entzuten euskara eta bultzada bat eman nahi genion.

Zer eginkizun duzue Euskara Batzordean? Zer ekarpen egiten duzue ikastetxean?

J.S.: Hainbat proiektu prestatzen ditugu noizbehinka, Euskararen Egunean, adibidez.

Abenduaren 3a ospatu al duzue?

Bai, ekimen ezberdinak egin ditugu.

Zein da Mendatako ikasleei Euskararen Egunean helarazi nahi izan diezuen mezua?

J.S.: Gu prest gaudela lan egiteko, baina ez garela inora iritsiko haien laguntzarik gabe.



Prensa tailerra 2019-2020

Leire Acebes, Nora Ait Akki, Kerman Aizpurua, Ione Aranberri, Ane Castillo, Urko Garcia, Kimetz Oñederra, Nadia Peralvo, Ibai Perez, Amalur Ponce, Nerea Urbizu, Maddi Urkiri eta Haizea Zubimendi.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala

EUSKARAREN EGUNA OSPATU DUGU MENDATAN

Mendata institutuan ere ospatu genuen Euskararen Eguna abenduaren 3an.

Bazkaldu aurretik ikasle batzuk trikitia, panderoa eta danborra jotzen ibili ziren, besteak dantzan ari ziren bitartean. Jolastokian zenbait bira eman ostean, kalejira eta bestelako abesti eta dantza batzuk ere izan ziren.

Bazkalostean, berriz, euskarari buruzko kartel lehiaketa bat egin zen. Lehenengo, esaera zahar bat aukeratu behar izan zuten eta, ondoren, zirriborro batean islatu zituzten beraien ideiak, gero kartelak egiteko. Lehiaketako irabazleen lanekin instituturako egutegiak egingo dira.

Horrez gain, Euskara Batzordeko kideek beraiek egin-dako manifestua irakurri zuten gelaz gela eta, horrekin batera, irakurritako mezuarekin ados zeudenen sinadurak bildu zituzten, euskararen aldeko konpromisoa hartuz.

Ikasleentzako, dena den, Euskararen Eguna ez zen abenduaren 3an bukatu; hurrengo egunean, 4. mailako ikasleak Eibarrera joan ziren "Euskararen Ginkana"-ren finala jokatzera.



LETRA-ZOPA

Hurrengo letra-zopan aurkitu ondorengo hitzak:

M	Z	O	A	R	K	I	S	L	E	B	K
A	X	E	I	S	F	G	H	G	B	A	O
R	T	O	K	A	I	N	E	A	U	H	A
B	B	S	L	A	P	X	A	L	R	N	D
E	U	A	U	R	U	B	I	L	B	S	E
L	M	R	A	T	F	A	K	J	U	Z	R
A	U	A	H	T	G	T	J	B	E	U	N
L	L	Z	H	A	E	K	Z	R	A	X	O
K	I	L	P	A	R	A	L	E	P	R	A
Z	E	A	X	R	I	B	T	A	D	I	K
A	R	O	S	M	A	H	A	L	K	R	D
G	X	F	A	Z	T	A	K	R	A	O	M

LIBURUA

ARKATZA

KOADERNO

ARBELA

AULKIA

ATEA

MAHAI

GRAPAGAILUAK

** Azaroko asmakizunen emaitzak: a) Pospoloak b) Amona, ama eta alaba

ABENDUAK 21, LARUNBATA

-10:00. **Euskaraldia: aktibazio saioa**, Agirre jauregi-ko ispiluen gelan.

ABENDUAK 22, IGANDEA

-12:00. **Bisita gidatua: "Gotikoaren altxorra, Deban"**, Santa Maria Elizan.

-11:00. Haurrek egindako **jaiotzen erakusketa** (familia mezen ondoren).

ABENDUAK 23, ASTELEHENA

-**Kolore Anitzekin irteera**, Txurin Urdin Izotz Jauregira (2012-2013 urteetan jaiotakoei zuzenduta).

ABENDUAK 24, ASTEARTEA

-8:00. **Mendi ibilaldia** Itziarko plazatik (Itziar-Karakate-Elgoibar). Buelta, garraio publikoan.

-12:00. **Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria**, plaza zaharrean. Ondoren, salda eta ogitarteko postua egongo da Foruen plazan.

-16:30. **Presoen aldeko Olentzeroa**, plaza zaharretik abiatuta.

ABENDUAK 27, OSTIRALA

-15:30. **Gabonetako Ume Festa**, Itziarko frontoian. Lizarbe guraso elkartearen eskutik.

-19:00. **Txotxongilo saioa: "Euskal Herriko itsasoa"**, Burugorri aretoan (5-12 urte bitartekoentzat).

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.

ABENDUAK 28, LARUNBATA

-11:30. **Jaiotza biziduna**, elizan.

ABENDUAK 29, IGANDEA

-12:00. **Bisita gidatua: "Fysch beltza"** -euskaraz-. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

-13:00. **Debako Musika Bandaren Gabon Zahar kontzertua**, elizan.

ABENDUAK 31, ASTEARTEA

-11:15-12:00. **XI. San Silbestrea**, Foruen plazan.

-19:30. **Topa** euskal preso politikoaren alde, plazan.

URTARRILAK 1-6

-**Urteberriko Idi Probak**, Euskal Jolasen.

URTARRILAK 4, LARUNBATA

-**Zoro Feria**. Egun osoko egitaraua antolatuko da.

URTARRILAK 5, IGANDEA

-19:00. **Errege kabalgata**, kaleetan zehar.

URTARRILAK 12, IGANDEA

-13:15. Kontzertua: **Alaikapela Gospel Abesbatza**, Itziarko elizan.

-16:30. **Haurrentzako zinea**, Kultur Elkartearen.

URTARRILAK 19, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M. T. eta Luzarok antolatuta: Dorleta-Arluz-Mandiola.

-**Ipuin kontaketak**, ispiluen gelan: 17:00etan, 3-7 urte bitartekoentzat / 18:00etan, 7-12 bitartekoentzat.

URTARRILAK 24, OSTIRALA

-19:00. **"Made in, Made for"** dokumentala eta ondorengo solasaldia Itziarko Burugorri Gainean.

KZguneko ikastaroak

-KZguneak goizeko ordutegia izango du abenduan eta arratsaldean arituko da urtarrilean. Hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: Oinarrizko formakuntza, Ofimatika, irudi edo bideoen tratamendua... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzguna.eus ataria.

Erakusketak

-**Elene Turrillas** gazteak sortutako lanen erakusketa izango da ikusgai abenduaren 20tik urtarriaren 6ra, Agirre jauregi erakusketa gelan -astelehene-tik larunbatera: 18:00-20:00; igandeetan: 12:00-14:00-.



-**Gabonetako margo eta marrazki erakusketak** antolatu du aurreneko Haiz Haundi Elkarte Artistikoak. Lanak abenduaren 21etik urtarriaren 3ra egongo dira ikusgai, udaletxe-ko pleno aretoan -lanegunetan: 18:00-20:00; jai-egunetan: 12:00-14:00 / 18:00-20:00-.

Gaboneko haur parkea

-Gabonetako haur parkea abenduaren 29an eta 30ean izango da, Aldats pilotalekuan. Goizez: 11:00-13:00 / arratsaldez: 16:00-19:00.

Gabonetako ordutegia udal liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du gabonetan, abenduaren 23tik urtarriaren 3ra bitartean (abenduaren 23an, 26an, 27an, 30ean eta urtarriaren 2an eta 3an). Liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara egongo da zabalik eta haur/gazte liburutegia, berri, 10:00etatik 13:00ak arte.

Ikasketa gela Kultur Elkartearen

-Kultur Elkartearen liburutegia ikasketa gela bezala erabiltzeko aukera izango da aurreneko abenduaren 20tik urtarriaren 7ra bitartean, azterketa garaia dela eta. Ikasleen artean adostuko dute erabilera ordutegia -asteburuetan eta jai egunetan ere irekita egongo da-.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **urtarrilak 3, 4, 5, 13, 14, 15, 16.**

Burgoa Zuazo: **abenduak 20, 21, 22, 30, 31.**
urtarrilak 1, 2.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)



DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urtarrilak 4 eta 11

BURGOA ZUAZO: abenduak 21, 28 / urtarrilak 18

9:30 - 13:00




Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



MARJE CASTRO Iribarren

Masajista

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615 **DEBA**

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.starideba.com

A D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.alain.taxideba.eus

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 27/05/049
NIVEL 2

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383

berriketan@zuhatza.com



k

kutxabank

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

BADATÓZ OLENTZERO ETA MARI DOMINGI EGUBERRI ON!



Abenduak 24, asteartea,
12:00etan ongietorria
plaza zaharrea.

Ondoren, salda eta
ogitarteko postua
Foruen plazan.

*Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.*

*Eguberri zoriontsua
eta urte berri on!*

URTARRILEAN, MATRIKULA ZABALIK!
DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA



Ifar Kalea, 12 – 20820 DEBA
943 19 22 36
udaleuskalgia.deba@debabe.eus